



TXIKITO!



Gazteen sormena saritu du Ipurterrek



XXXI. IPURTERRE IPUIN LEHIAKETA

Badira 31 urte ...eta kitto! Euskara Elkarteak Ipurterre Ipuin Lehiaketa abian jarri zuela. Eibarko ikastetxeekin elkarlanean antolatzen duen ekimen honen helburua haur eta gazteen artean irakurzaletasuna eta idazteko zaletasuna bultzatzea da. LH eta DBHko ikasleei zuzendutako lehiaketan, aurten 1.000 ipuin inguru jaso ditugu. Ikasle zein irakasleek lan bikaina egin duzue aurten ere eta, beraz, irabazleei zoriontzeaz gainera, gure eskerrik beroena helarazi nahi dizuegu parte hartu duzuen guztioi. Jarraitu idazten eta irakurtzen, Eibarren harrobi ederra dugu-eta!

Sari-banaketaren laburpena QRan ikusgai
Ekitaldi osoa ..eta kitto!-ren YouTube kanalean



Argitaratzailea
“...eta kitto!”
Euskara Elkarte
Urkizu, 11
20600 Eibar
Tel: 943 206776

**Erredakzio-
kontseilua**
Maider Aranberri,
Ana Aizpurua,
Ekhi Belar eta
Eibarko ikastetxeak.

Administrazioa
Marisol Uriarte

Erredakzioa
Maider Aranberri
eta Ekhi Belar

Ikusentzunezkoak
Yanire Sagredo

Azaleko argazkia
Ana Aizpurua

Copyright-a
Txikitto!

Lege-gordailua
SS-1111/96

Administrazioa
Marisol Uriarte





Eguazten goizean Coliseon elkartu ziren Ipurterre ipuin-lehiaketako irabazleak eta euren ikaskideak. Pozarren iritsi ziren antzokira, sarituei txalotzeaz gain, zain zuten magia-ikuskizunaz gozatzeko irrikaz.





LH 1-2

Lucia Zubillaga Etxebarria (J.A. Mogel Ikastola)

IZURDET XOA GAIZKI SENTITZEN DA

Urrutiko lurralde batean, bazegoen itsasoaren fondoan izurde talde bat. Guztiak mutilak ziren, bat izan ezik, Lala.

Oso gaizki sentitzen zen Lala. Mutilak beti beti-beti berdinean jolasten eta Lala bakar-bakarrik. Lalak beste lagun batzuk zituen baina izurderik ez.

Egun batean, Lala algen sokarekin jolasten ari zela, arrantzale talde bat agertu zen itsasontzi batean. Sareak bota zituen. Lala korrika hasi zen. Umetxo baten negarra entzun zuen. Uaaa uaaa uaaa!!! Jaio berria zen izurdetxoa. Lala korrika joan zen laguntzera. Sareari jo egin zion, umea ondo osatu eta harri haundi baten azpian sartu zen. Itsasontzia joan zenean, izurdetxoaren ama etorri zen eta asko eskertu zion.

Itsasoak Lala aukeratu zuen itsasoko erregina bezala. Mantxa bat atera zitzaion hegala azpian eta asko lagundu zion beraren familia topatzen. Eta denak elkarrekin aurora boreala ikusten geratu ziren.

Katu katu ipuina bukatu.





LH 3-4

Aiora Larrañaga Martinez (J. A. Mogel ikastola)

HIRU BARAZKIAK VS KATUA

Bazen behin urruneko baserri batean sukalde bat. Bertan hozkailu bat zegoen, eta han hiru barazkitxo txiki bizi ziren. Behin, jabeek hozkailua irekita utzi zuten, eta bertan zegoen janari guztia usteltzen hasi zen. Hiru barazkitxoak akordio batera iritsi ziren: “Ihes egin behar dugu, bestela guztiak ustelduko gara!”, esan zuen azenarioak. Tomateak eta Patatak buruarekin baietz esan zuten, eta ihes egin zuten.

Ihes egiten zebiltzala etxeko katua agertu zen, eta barazkiak korrika atera ziren. Zorionez urtzen ari ziren izotz batzuen barruan eskutatu ziren, eta ur freskoa edan zuten. Pentsatu eta pentsatu ari zirela, Nacho Mexicano bat atera zen gitarra jotzen. Eta laguntza eskaini zien hiru barazkitxoiei. Ondoren lau janari iheslariak katuaren kontra egitera joan

ziren. Oso urduri zeuden, baina Nacho Mexikarrak plan on bat zuen.

Eta Nachoak esan zuen: “Katuari guakamole super pikantea emango diot eta hala mingaina erreko zaio eta ezingo zaituzte jan”. Nachoaren planari jarraituz guakamole pikantea eman zioten eta barazkiek ihes egin zuten.





LH 5-6

Jon Mendoza Tejada (Aldatze ikastetxea)

ARGAKO SUTE HANDIA

Argarren, 1565eko ekainaren 7an 1.605 biztanle zeuden, 1605garren biztanlea dragoi bat zen. Dragoiak hitz egiten zuen eta pertsona baten gauzak egin ahal zituen. Dragoiak ez zuen bihotzik (beste mundu bateko animalia zelako), eta barre egiten zioten. Dragoiak ez zituen kontuan hartzen esaten zizkioten hitz zatarrak, adibidez hartz maitagarria esaten zioten arrosa zelako, baina dragoia ona zen pertsona guztiakin. Dragoiak ez zuen etxerik, kobazulo batean bizi zen, orduan, jendeak etxe gabea deitzen zion. Argarren printze bat dago, printzea beti bere morroiarekin doa, Antxon. Printzea oso txarra da, beti dragoiari zirikatzen ziolako. Printzeak diru asko zuen, orduan, jendeari ordaintzen zion dragoia zirikatzeko.



Ekainaren 8a zen, hurrengo egunean, beti bezala, dragoia ogia eta barazkiak eroatera zihoan, baina bat-batean, printzea agertu zen, printzea dragoiari zirikatzen hasi zen, eta dragoiak esan zion ez zitzaiola axola. Orduan, printzea asko haserretu zen, Antxon eta beste morroi guztiei deitu zion, morroiak dragoiaren atzetik ari ziren, dragoia hil nahi zutelako. Dragoiak ezetz esaten zuen, berak ez zuela ezer txarra egin, baina morroiek berari segika jarraitu zuten. Orduan, momentu hartan, dragoia pixkat haserretu zen eta su pixkat atera zitzaion ahotik, morroi guztiak beldurtu ziren. Halako batean, dragoia gorritzen hasi zen, azkenean kolore gorri-gorri bat hartu arte, hegoak handitu ziren eta ahotik sua botatzen zuen, sua bota eta bota ari zen, eta konturatu gabe Arga sutan zegoen. Momentu hartan dragoia oso triste zegoen, berak ez zuelako hori egin nahi, baina hainbeste haserretu zen... Orduan, denak hil zirela konturatu zen, baina hiru pertsona falta ziren, hiru baserritar. Beraien laguntzarekin herria konpontzen ari ziren, egunero pixkat. Ekainaren 12an herri



erdia konpondu zuten, eta bat-batean mamu itxurako pertsona bast agertu zen, eta mamu horrek dragoiari hau esan zion.

“Zure bizitzaren truke 1.601 biztanle bizira eramango ditut”. Dragoiak baietz esan zuen, momentu hartan dardarka zegoen eta mamuak bola urdin eta arrosa arraro bat bota zion, explosio txiki bat egon zen, eta dragoia hil zen, oso arraroa izan zen. Guztiak bere etxeetan agertu ziren eta hiru biztanle horiek zer gertatu zen kontatu zieten, nola gertatu zen eta zergatik gertatu zen ere; denak oso harrituta geratu ziren, ezin zuten sinetsi, orduan, gauza bat adostu zuten, printzea herritik botako



zuten. Printzea hartu eta oso urrun bidali zuten hegazkinez, denak oso posik zeuden; jai bat ere sortu zuten ekainaren 12an urtero, dragoiaren festa, txinan bezala baino dragoi arrosa batekin.



Ekainaren 29an, eskultura bat egin zioten plazan, eta egun horretan Argako historia famatuena bihurtu zen, dragoi arrosaren historia. Egun hartatik aurrera Argarren ume txikiei istorio hau kontatzen diete gauero eta guztiek lo ondo egiten dute. Hala bazan edo ez bazan, sar dadila Untzagako plazan.



DBH 1-2

June Alzaga Arronategui (Eibar BHI)

ESKERRIK ASKO AMONA

“Kaixo amama!” esan nion, “Kaixo maitia” erantzun zuen berak. Bera sukaldeko mahaian eserita zegoen, eta bere ondoan eseri nintzen. Bazkaltzen hasi ginen eta amonari nire eskolako kontuak kotatzen hasi nintzen. Kontatzen nengoela nostalgia apur bat sartu zitzaidan eta nire lagun zahar batekin gogoratu nintzen. “Oroitzen ahal duzu amona?” esan nion, “Nor?” galdetu zidan. “Amani”. Amonak burua jaitsi zuen eta baietz esan zidan “Arraroa da, ezta?” esan nuen nik. Amonak ez zuen ezer esan, baina berak berdina sentitzen zuela banekien.

Faltan botatzen nuen, eta berataz ez hitz egiteaz nekatuta nengoen. Azkenean amonak hitz egin zuen: “Hutuak gara, ez duzu hori ahaztu behar. Zure laguna zen, baina horrelakoa da bizitza, batzuetan gugatik begiratu behar dugu.” Ixilik geratu nintzen. Ez genuen gehiago hitz egin bazkari osoan. Bazkaltzen bukatu genuenean mahaia jaso eta garbitzen lagundu nuen. Gero amonari agur esan eta etxera joan nintzen.



Ezin nuen gehiago. Bai, hutua naiz baina, zer inporta du? Arazo politikoez nekatuta negoen, banatuta bizi ginen herrialde berdinean. Nire lehengusu nagusiak, hutuen garaieragatik borrokatu behar genuela zioen, baina nire ustez garaile ez da inor irtetzen gatazka hauetan. Amani galdu nuen nik, eta beste askok ere maitatzen zuten jendea galdu zuten. Horrela jarraituz gero, beste askok galduko zituzten maitatzen zituztenak.





Nik bakarrik ezin nuen ezer egin, eta nire inguruko jendeak ez zuen nik bezala pentsatzen.

Hurrengo egunean amonaren etxera joan nintzen berriro ere. Heldu nintzenean amona sukaldean eserita zegoen eta berarekin eseri nintzen. Amonak begiratu eta momentu batez isilik geratu zen. Gero barkamena eskatu zidan, eta beldurra soilik zuela esan zidan. Haserre ez nengoela esan nion eta bazkaltzen iraganari buruz hizketan egon ginen. Oso bazkari atsegina izan zen.

Amonak M23 taldeari buruz hitz egin zidan. M23a tutsi etniako jendez osatutako talde militar bat zen. M23 izena 2009ko martxoaren 23an gobernuarekin sinatu zuten bake akordioari erreferentzia eginez jarri zioten. Akordio hau ez zen bete eta 2012an Goma hiriburua hartu zuten data berean. Bederatzi urtez, 2013tik, inaktibo egon zen, baina 2022an atakeak berriro hasi ziren. Gezurretako bakeak iraun zuen urte horietan ezagutu nuen Amani.

M23 taldeko partaideak tutsiak ziren eta gauza bortitzak egiten zituzten, baina hemen ez da inor ona, 1994ko apirilaren 7tik uztailearen 15era hutuek tutsien aurkako genozidioa burutu baitzuten. 100 egun hauetan 800.000 tutsi hil ziren hutuen eskuetan. Amonak hau kontatzen zidan heinean galdu zituen lagunak aipatzen zituen, bere begietan mina nabaritzen zen, lagunak eta maitatuak galtzearen mina. Honek pentsarazi zidan, zenbat jende, zenbat ume, zenbat errugabe hil ziren arazo etniko honen erruz. Nik ez nuen horrela bizi nahi, nire bizilagunak gorrotatzen tutsiak izateagatik.

Amonak guztia kontatzen bukatu zuenean, besarkatu egin nuen eta eskerrak eman nizkion. Bera nahastuta zirudien, eta “Zergatik?” galdetu zidan. Nik irribarre egin nion, eta hurrengo esan nion: “Benetako arazoez hitz egiteagatik, eta ni mozolua izango banintz bezala tratatzeagatik. Eskerrik asko nitan konfiatzeagatik eta nirekin irekitzeagatik”. Amona negarrez hasi zen eta besarkada handi bat eman zidan.

Bere etxetik irten nintzenean espero ez nuen zerbait gertatu zen. Nire aurrean Amani zegoen irribarre egiten. Amona leihotik ni begiratzen zegoen, eta gure begiradak gurutzatu zirenean, irribarre egin zidan. Korrika Amanirengana joan eta elkar besarkatu genuen negar batean, “faltan bota zaitut”. xuxurlatu nion nik belarrira.





DBH 1-2

Alaitz Herrera Urionabarrenechea (La Salle Azitain ikastetxea)

NAIZEN BEZALAKOA ONAR NAZAZU

Oroimena dudanetik, ez naiz onartua sentitu. Nire azal kanela, nire ile kizkur bihurria eta nire begi ilunak ez zetozen bat azal argi eta ile iluneko nire familiarekin. Ez ikusiarena egiten saiatzen nintzen arren, eskolako komentarioak ez ziren inoiz gelditzen. “Adoptatua zara”, esaten zidaten barre artean. Batzuek iseka egiteko erabiltzen zuten, beste batzuek berriz, nirekin ligatzeko (mutilek ez zekitelako nola hurbildu nigana). Nik haiek esandako guztia alde batera uzten nuen banekielako dena gezurra zela, haurtzaroko argazkiak ikusita nituelako. Hantxe nengoen ni, amaren besoetan, aitona-amonak irribarrez. Ezin zen egia izan, ezta?





Saskibaloia zen nire babeslekua. Kantxan dena desagertzen zen. Ez zegoen begirada arrarorik, ez galdera deserosorik, ez barre disimulaturik. Ni bakarrik, baloia eta uztaia. Nire bake tokia zen. Hortik kanpo, zalantzek eta begiradek gaizki sentitzea eragiten ninduten.

Egun batean, ikastetxean azterketa medikoak egin zizkiguten. Prozesuaren zati batean gure odol taldea (hau da, genetika) sartzen zen. Ez zen garrantzizkoa, Eleneren (nire lagunik onena) aurpegia ikusi nuen arte. Haren amak, institutuko erizainak, nire odol taldea idatzi zuen, eta Elenek ondo zekien ez zetorrela bat nire gurasoenarekin. Isilik geratu zen, baina haren begietan ikusi nuen: ezagutzen ez nuen zerbait aurkitu berria zuen.

Egunak pasa ahala, bere jarrera nigan aldatu zen. Jadanik ez zen bera normalean zen bezalakoa nirekin, urrun eta urduri sentitzen nuen. Ez nuen ulertzen zer ari zen gertatzen, korridoreetako xuxurlak hasi ziren arte. Nik jakin gabe, ezagutzen ez nuen sekretua institutu osoan zehar zebilela ikusi nuen. Guztiek bazekiten...guztiek, nik izan ezik.

Goiz batean, nire telefonoan ari nintzela, "post" bat agertu zen ikastetxeko txutxumutxuen kontu anonimoan: "Gelako beltzarana adoptatua da eta berak ez daki ezer!". Arnasarik gabe geratu nintzen. Komentarioak krudelak ziren, isekez beteak.

Biluzik sentitu nintzen denen aurrean, arriskuan, baina gehien mindu ninduen Elene izan zen. Txikitatik ginen lagunak, banaezinak. Eskua sutan jarri nuke berarengandik. Eta orain bera izan zen, aurpegira esan beharrean, beste guztiekin partekatu zuena. Traizionatua sentitu nintzen, baztertua, elkarrekin eraiki genuen guztiak ezer esan nahi izan ez balu bezala.

Gau hartan, hautsita iritsi nintzen etxera. Gurasoek ikusi ninduten eta ulertu zuten ezin zidatelako ezkututzen jarraitu. Sofan eseri ninduten eta, begirada triste batez, egia esan zidaten: ez ziren nire guraso biologikoak. Espioaiak ziren, nire benetako gurasoak bezala. Misio batean, nire guraso biologikoek haiekin utzi behar izan ninduten ni babaesteko. Gerra beraien herrialdean hasi zen, era ezin izan ziren itzuli.

Hutsune sakon bat sentitu nuen bularrean. Adoptatua izateaz gain, nire guraso biologikoak guerra batean galdu nituen. "Zenbat familia suntsitu dira? Ni bezalako





zenbat haur baztertu dituzte beraien benetako gurasoengandik ezer egin ezinik?” pentsatu nuen.

Baina istorioa ez zen hor amaitzen. Denborarekin, nire guraso biologikoak bizirik zeudela jakin nuen, baina ezin zirela hurbildu. Pertsona arriskutsuak zeuden beraien atzetik, eta nor nintzen jakiten bazuten, haien contra erabiliko ninduten. Urrun mantentzea erabaki zuten, ni itzalean ezkutatuz eta salbu nengoela ziurtatuz.

Min izugarria sentitu nuen inoiz ezin izango nindutela besarkatu jakiteak, baina, aldi berean, haien maitasuna sentitzen nuen nigatik egin zuten sakrifizio bakoitzean.

Ulertu nuen familia ez dela odola bakarrik, baizik eta zu babesteko prest daudenak, kostua gorabehera. Min ematen bazidan ere, ikusi ezin banituen ere, badakit ez nintzela inoiz bakarrik egon.

Orain, atzera begiratzen dudanean, ulertzen dut benetan maitasunak ez duela presentzia fisikorik behar bihotzean sentitzeko. Nire familia beti egon da nirekin, era batera edo bestera. Bizitza bidegabea izan daitekeela ikasi nuen, egiak min eman dezakeel, baina baita maitasun zintzoak distantziatik, beldurretatik eta sekretuetatik bizirik irauten duela ere.

Familia ez da beti perfektua, baina guk dugun gauzarik garrantzitsuena da. Erortzen garenean eusten gaitu, galduta gaudenean gidatzen gaitu eta ikusten ez dugunean ere babesten gaitu.



Gaur, inoiz baino gehiago, badakit ez duela axola nondik natorren, ez nire azalaren koloreak, ez nire iraganeko istorio kontatu gabeek. Axola duen gauza bakarra maitatua izan naizela da, eta horrek, beste edozeren gainetik, seguru sentiarazten nau.



Ituiño magoak ez zuen hutsik egin, bere onena eman zuen eta ikusleak aho zabalik utzi zituen. Magia-ikuskizun bikaina eskaini zuen, trikimailu zoragarriekin. Horretarako, Coliseon izan ziren gazteetako batzuen laguntza ere izan zuen.




**Begiak beste nonbait dituen neskata 6 urtetik aurrera**

Neskata bat hain dabil mugikorrari adi, erreparatu ere ez diela egiten bere inguruko gertaera fantastiko batzuei. Hartz lagunkoi batek besarkada bat eman nahi badio ere, neskatak ez dio begirik kenduko ustez tentagarriagoa zaion horri. Harik eta egun batean...

**Jainko-jainkosen lasterketa 8 urtetik aurrera**

Zoe eta bere txirrindulari taldeko guztiak etsita eta burumakur daude, ez baitituzte onartzen lasterketa bakar batean ere, eta, horren ondorioz, ezin dituzte lortu lehiatzen jarraitzeko beharrezkoak dituzten puntuak. Esperantzaz galtzear daudela, gonbidapen bat iritsi zaie Atenasetik: Zeusen mirakulua! Zoek Jainko-Jainkosen lasterketa mitikoan parte hartuko du.

**Ibai Gorria 10 urtetik aurrera**

Shaka mutikoak eta haren lagunek igerilari handiak izan nahi dute Tokioko Joko Olinpikoetan irabazteko, 1964an. Horregatik jo eta ke entrenatzen dute Ibai Gorriko uretan. Baina haien ametsak hondora joango dira apartheidaren egunak txarrenak bizi dituen Hegoafrikan, Nelson Mandela kartzelan dagoenean. Shakak badaki gauzek aldatu egin behar dutela, zeren, ingurura askotan begiratuta ere, beti ateratzen baitu ondorio bera: pertsona guztiak berdinak gara.

**BITXIKERIAK**

Giza hortzak dira berez sendatu ezin den gorputzeko atal bakarra.



Big Ben erlojua 2005eko maiatzaren 27ko 22:07an gelditu zen egun horretan egin zuen beroagatik, ia 38°!

Japonian 200 Kit-Kat zapore baino gehiago daude.





7 EZBERDINTASUNAK



Bidali erantzunak **EKAINAK 4** baino lehen
...eta kitto! Euskara Elkarte - Urkizu 11 . Eibar

Izen-abizenak.....

Adina..... Tel.



AURREKO ALEKO IRABAZLEA

Aupa MAREN txapelduna! Aurreko aleko erantzunak bikain asmatu dituzu eta zozketan zeu irten zara irabazle. Ipuina eta ...eta kitto!-ren bisera zureta! ZORIONAK!

ZU BAI MARGOLARI!

